

## HELDUEN HITZA ERRUMANIA

### 2019 EKAINAK 4-11

#### **Ekainak 04: DONOSTIA - BILBO - MUNICH - BUKAREST**

Aurkezpena Donostiako autobus geltoki berrian, ekainaren 04an, asteartea, goizeko 08.00etan (B The Travel Brandeko laguntzaile arduradunarekin elkartuko gara), Bilboko aireportura joateko.

11.30ean, irteera Lufthansa konpainiarekin. 13.35ean iritsiko gara Munichera. Irteera 15.20an eta iritsiera Bukarestera 18.15ean. Bukarestera iritsi eta hotelera joango gara.

Gainerako orduak libre, hiriarekin lehenengo harremana edukitzeko. **Afaria** eta ostatua.

#### **Ekainak 05: BUKAREST - SIBIU (300 km.)**

**Gosaria.** Goizean, hiriburuari bisita: Iraultzaren Plaza, Konstituzioaren Plaza, Errege Jauregia, Errumaniar Ateneoa, etab.

Errumaniaren barrualderantz abiatuko gara, eta Vilcea Departamentua zeharkatuko dugu. Aintzira, baso eta bainuetxe ugariko ingurua da, eta, tradizioaren arabera, han egon zen Trajano Enperadorearen kanpalekua Daziarren kontrako azken gerran.

Cozian egingo dugu geldialdia, monasterioa ikusteko, eta ondoren, Sibiurako bidea hartuko dugu. Sibiuk Erdi Aroko kutsua du, baina baita kutsu modernoa ere. **Bazkaria Sibiuko jatetxe batean.** Hotelera joango gara gero. **Afaria** eta ostatua.

#### **Ekainak 06: SIBIU - SIGHISOARA - BISTRITA: DRACULA KONDEAREN IBILBIDEA (248 km.)**

**Gosaria.** Hiriri bisita, erdigunea ezagutzeko. Irteera Sighisoara bidean, Transilvaniako Karpatoetan. Denbora librea Erdi Aroko gotorlekua ezagutzeko (UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatua), erromatar jatorriko "Castrum Sex", saxoiek XII. mendean okupatua; estilo eta eragin nahasketa bat da. Aipagarria da

Erlojuaren Dorrea, 64 m-koa, eta Vlad Tepes "Enperadorearen" jaiotetxea. **Bazkaria bertako jatetxe batean.**

Ondoren, Bistritara jarraituko dugu, Bram Stockerren Dracula eleberriari esker ezaguna. Eleberriko protagonista hiri honetara iristen denean, "Urrezko Koroa" hotelean hartzen du ostatu, gaua igarotzeko, Dracula Kondeari itxaroten dion bitartean. **Afaria** eta ostatua.

### **Ekainak 07: BISTRITA – BORGOKO IGAROBIDEA – MOLDOVITAKO MONASTERIOA - SULEVITAKO MONASTERIOA - BUCOVINA (MONASTERIOEN ESKUALDEA) GURA HUMORULUI (250 km.)**

**Gosaria.** Irteera Borgoko igarobidera, Bargau mendietan, Transilvaniako lekurik adierazgarrienetako bat. Geldialdia Erdi Aroko estiloko Dracula Hotelean, 1.116 m-ra. **Bazkaria bidean.**

Ondoren, Bucovinako monasterio ospetsuenak bisitatuko ditugu, Moldaviako probintziaren iparraldean. Bizantziar artearen erakusgarria ederrak dira, Esteban Handiaren garaian eraikiak (XV. m.) eta aipagarriak dira kanpoaldeko freskoak, Bibliari buruzko benetako ipuinak. Lehenik, Moldovitako bizantziar monasteriora joango gara (bertan dago Deikundearen eliza, errumaniar artearen maisulana). Esteban Handiaren seme Petru Raresen erreinaldian eraikia, XVI. mendean. Ondoren, Sucevitako monasteriora joango gara bisitan, harizko gotorleku sendoa.

Handik hotelera, Bucovinako Eskualdean (monasterioen eskualdea). Amaitzeko, Voroneteko monasterioa ezagutuko dugu, "Ekialdeko Kapera Sixtinoa", bertako freskoen hondo urdin ikusgarriarekin. **Afaria** eta ostatua.

### **Ekainak 08: GURA HUMORULUI - BUCOVINA – NEAMTEKO MONASTERIOA - KARPATOAK – AINTZIRA GORRIA - BRASOV (300 km.)**

**Gosaria.** Irteera Neamteko monasteriora, Esteban Handiak egindako handienetako bat. Oso dekorazio berezia du fatxadetan, eta aipagarriak dira zeramikazko diskoak, bertikalean eta horizontalean jarrita. **Bazkaria bidean.**

Brasoverako bidean, paisaia ikusgarriak igaroko ditugu, baso, aintzira eta bainuetxeetatik barrena, eta Bicz ibaiaren haitzartetik. Geldialdia Aintzira Gorriko estazioan. Brasovera iritsiera. **Afaria** eta ostatua.

### **Ekainak 09:**

### **BRASOV - SINAI - BRASOV (100 km.)**

**Gosaria.** Hiriri bisita. Oso ondo zaindu dira alderdi zaharreko eraikuntzak eta hirigintza: Piata Sfatului, Eliza Beltza, Tronpeten Dorrea, gotorlekuak, Schei auzoa, San Nikolas eliza, etab. Sinaira abiatuko gara, eta Hohenzollern Sigmaringen familiaren (XIX. m.) Peles gaztelu-jauregia bisitatuko dugu. Bibliako Sinai mendiaren izena zuen antzinako monasterio batetik hartu zuen izena hiriak; handik hurbil Errumaniako Karol I. erregeak eraiki uzten Udako jauregi hori.

Ondoren, **Bazkaria bidean.** Gero Brasovera itzulera. **Afaria** eta ostatua.

### **Ekainak 10: BRASOV - BRAN - BUKAREST (200 km.)**

**Gosaria.** Ondoren, irteera **Braneko gaztelura**, eta bidean, **bazkaria**. Gaztelu hori XIV. mendean eraiki zen, turkiar inbasioei aurre egiteko, eta lotuta dago Dracularen elezaharrarekin. 1920. urteaz geroztik errumaniar errege-erreginen udako egoitza izan zen.

Irteera Bukarestera. Vlad Tepesek sortu zuen. **Bazkaria bertako jatetxe batean.** Bukaresteko auzo zaharrera bisita.

Gauean, **afari-ikuskizuna, herrialdeko musikarekin eta folkloreakin.** Ostatua.

### **Ekainak 11: BUKAREST - MUNICH - BILBO - DONOSTIA**

**Gosaria.** Aireportura irteera aipatutako orduan, irteera Bukarestetik 12.40ean eta iritsiera Munichera 13.40ean. Munichetik irteera 15.50ean eta iritsiera Bilbora 18.00etan.

Donostiko Autobus geltokira garraio pribatuan. Gutxi gorabeherako iritsiera ordua, 19.30ean.

#### AURREKUSITAKO HOTELAK EDO ANTZEKOAK

HIRIA	/ GAU KOPURUA	/ HOTELAREN IZENA	/ PUNTUAZIOA	BOOKINGEN
Bukarest	1	Golden Tulip Victoria 4*	8	1,6 km-ra erdigune historikotik
Sibiu	1	Golden Tulip Ana Tower 4*	8,4	1,1 km-ra erdigune historikotik
Bistrita	1	Coroana de Aur 4*	9,3	1,3 km-ra erdigune historikotik
Gura Humorului	1	Best Western 4*	8,5	300m- ra erdigune historikotik
Brasov	2	Ambient 4*	8,6	1,1 km- ra erdigune historikotik
Bukarest	1	Golden Tulip Victoria 4*	8	1,6 km-ra erdigune historikotik

#### HEGALDIAK

EKAINAK 4 BILBAO 11h30 - MUNICH 13h35 MUNICH 15h20 - BUKAREST 18h15

EKAINAK 11 BUKAREST 12h20 - MUNICH 13h40 MUNICH 15h50 - BILBAO 18h00

**PREZIOA PERTSONAKO, GELA BIKOITZEAN ..... 1.198 €**

**PREZIOA GUTXIENEZ 40 LAGUNEN TALDEARENTZAT**

**GEHIGARRIA PERTSONAKO 35-40 LAGUN BITARTEKO TALDEARENTZAT ..... 32 €**

**GEHIGARRIA BAKARKAKO GELARENTZAT ..... 267 €**

#### PREZIOAN SARTZEN DA

- Autobusa Donostiatik – Bilboko aireportura – Donostiara.
- Hegaldiak Lufthansa konpainiarekin, turista klasean.
- Aireportuko tasak (2018/07/09ko prezioan).
- 7 gaueko egonaldia, aurreikusitako hoteletan edo antzekoetan, ostatua eta gosaria erregimenean, gela bikoitz estandarretan.
- Pentsio osoko erregimeneko egonaldiak ibilaldiaren arabera: gosari guztiak: 6 bazkari (3 plater + ura); 6 afari (3 plater + ura).
- Laguntzaile arduraduna Donostiatik bertatik (B The Travel Brand).
- Gida gaztelaniaz egonaldi osoan.
- Sarrerak bisita lekuetara: Cozia monasterioa, Sighisoara, Erlojuaren dorrea eta Armen aretoa, Buvocina monasterioak (Moldovita, Sucevita, Voronet eta Neamt), Eliza Beltza Brasov, Bran Gaztelua, Sinaiako monasterioa eta Peles Jauregia.
- Garraioa autobus modernoan, errepideetako tasak eta aparkalekua.
- Intermundial Plusen aseguruua (laguntza/baliogabetzea/ekipajea), estalduren arabera.
- Eskupekoak

#### IZEN-EMATEA

- Aurkezpen-hitzaldia Azaroaren 12an, 17:00etan (5 PM), Topalekun (Pagoa Aretoa)
- 100 €-ko aurrerapena pertsonako 11/25 baino lehen, transferentzia bidez Helduen Hitzaren kontu korrontera, Laboral Kutxan ES 14 3035 0060 410600113885
- Kontzeptua: bidaiarien izena eta abizena + Errumania

#### ORDAINKETAK

- 300 €-ko gordailua abenduak 15 baino lehen. Aurretik B the Travel Brandera joan behar da, NAN eskaneatzera
- Azken ordainketa, maiatzak 10 baino lehen
- Bankuko transferentzia bidez beti, Helduen Hitzaren kontu korrontera, Laboral Kutxan, kontzeptu bera jarrita: ES 14 3035 0060 410600113885

#### DEUSEZTATZE GASTUAK

- 100 € deuseztatze gastuak apirilaren 15a baino lehen. Egun horretatik aurrera, kasuak bakarka aztertuko dira.

#### HARREMANETARAKO

- María Jesús Leria: [hhviajesmjesusleria@gmail.com](mailto:hhviajesmjesusleria@gmail.com)
- Tel. 674130270 astelehenetik ostiralera, 19.00etatik 22.00etara

